

Lengoan albotik igarotean,  
jakin-min itandu neutson gogotik:  
«Tamal aut, arte zar! Ain ago zarpail,  
iparrak errea oso-osorik».

Arek oiur niri: «Etzaite nitaz  
erruki; ostoak ausiko daustez,  
ez baiña enborrik eratsi. Ez bein!  
Onelaxe diraut eundaka urtez».

\* \* \*

Gaurko gazteak be onan ditugu:  
aizearen gisa zaratots puzkor.  
Zarra, orraitiño, berean nausi.  
Gaitzezan arte, ez aize galkor.

### ZU BAKARRIK MAITE

Gaur goizez atzera laga zaitudan  
naigabe joanen gomuta larri:  
etzaitzez geiago etsai niretzat  
etzaitzez geiago, ez, gogaikarri.

Bakarrik noake bide zearka,  
iñor -bage giza illen artean,  
argiaren irri ta mosu barik,  
ibil-aldiaren zaldi gaiñean.

Itzaltsua, makur-une antzera,  
datorkit gaiñera arrats ariña,  
iñar-gori asko igaro dan  
egun laburraren negar oztiña.

Bakarrik noake. Aurrez-aur dodan  
bidean begiak ba'ditut ezar,

neronen burua dakust osorik  
izuaren erpa artean zakar.

Zain dot eriotza, illun, irrikoi.  
Obi-gerizak daust izuz gogoa  
maillupe ler-azten. Otzaren esku!  
Eriotz-algara! Bazi bakoa!

Ba-dot, orraitiño, itxaroaren  
erraiñu gardena, barru josia:  
geroak izango dau bertso oneitan  
nire biotz-poz ta miñen barria.

Dana odol arrats-beeran,  
bai bee-alde, bai mendi;  
gero, illaren eskua lez,  
dana jarri da galdi.

Uneak iku ondoren,  
zemai ixil-mende datza;  
arkaitz baizen zut-jagia  
Oiz azpiko zugatza.

Bat-batez da jfxasperatu  
adar-gori euzkia,  
eta txoriak atertu  
arrats-ekiñaldia.

Goi ta bee, oro estaliz,  
ikara dira itzalak,  
ta ez dakuse arean  
nire begi minduak.